

Errotara orduko makaleko lana ematen zuen...

Gaur egun ereiten den garia Tigris eta Eufrates ibaien arteko asiar lurraldetik eratorria da eta Ekialde Hurbiletik norabide guztietan zabaldu zen bere ekoizpena.

Garia garapen ekonomiko eta kulturalaren parte izan da, gehien ekoiztutako zereala: giza elikagai bezala erabilia, nahiz eta zati handi bat abereen jakitarako edo pentsutarako bideratu .

Gariaren ezaugarri garrantzitsuena, irina erretzeko erraztasuna da, honekin gizonarentzat oinarritzko elikagaia den ogia lortuz.

Lurra finkatua, belar txarrak kenduta eta ondo xehatua egon behar du garia ereiteko. Klima, soruaren egoera eta aurretik landatua egon den produktuaren arabera aldatzen dira lan egiteko erak eta ereiteko garai egokiaren aukeraketa. 'Neguko garia'k udazkenean ereiten dira eta temperatura baxuko denboraldi luzea eskatzen dute eta 'udako garia' berriz udaberri edo udazkenean erein dira, batez ere zonalde mediterraneoan negu hain gogorrak izaten ez dituzten tokietan.



Bizkaian 'gari sasoia' iristean ereiten zen garia, hau da, Urria edo Azaroan. Udazkenean ereindako gariak erredimendu hobeak ematen ditu denbora luzeke hazkundeagatik, hain zuzen udaren hasieratarako heltzen da.

Denbora ona bazegoen Karmen-en bueltan ebakitzen zen saila, Uztail erdialdean. Hasieran igitaiarekin ebakitzen zen eta ondoren lana errazteko sega erabiltzen hasi ziren. Honetarako momentu egokia garauak mamitsuak daudenean eta zurtoinak berde kolorea galtzean izaten da.

Ebaki ondoren garia zikatu egin behar izaten zen, horretarako 'lastasauek' egiten ziren: eskukada gari hartu eta erditik bueltan batzen ziren, gari multzo txikiak eginez. Ondoren 'lastasau' hauek multzoetan pilatzen ziren, 'mutxurixuk' sortuz. Hau da, 'lastasau' bakoitza hartu eta kono forman, garauak gora begira zituztela, pilatzen ziren. Solo guztia 'mutxurixoz' beteta gelditzen zen, paisai ikusgarria osatuz.

Ondo zikatu ostean, garien jabearen etxe ondora edo gari joteko lekura eramaten ziren guztiak. Bertan berriz meta bat egiten zuten 'lastasau' guztiekin eta gorengo gelditzen zirenak zerbaitekin estaltzen zituzten.

Uztail-Abuztuko hileetan egiten zen 'Gari jotea' : landaretik garauak bereiztea.

Horretarako matxaka eta motorra erabiltzen zituzten gure baserritarrek. Denbora ona zegoenean egin behar izaten zen lan hau. Gari sailen jabeak, inguruetako baserritarren baten laguntzaz, erabiltzen zuen 'matxaka'. Motorrera uhalen bidez komunikatzen zen barneko errodilloak mugitzeko.

Egurrezkoa mahai bat izaten zen, barnean errodillo batzuek zituelarik: jabeak lastasaue eskuetan hartu eta errodilloen barnean sartzen zuen garauen partea. Horrela makinak 'lastautse' (alearen gaineko azal babeslea) eta lastoa bereizten zituen.

Soberako lastoa bildu egin behar izaten zen, lan honetarako oso erabilgarria izaten zen 'bigurre': urritxezko palu bat (sendoa eta aldi berean elastikoa zelako). Lasto multzoak azpitik hartu eta urritx palua biribilduz lepo gainera altzatu eta beste leku batean lasto-fardoak egiten zituzten.

Lortutako gariaren gehiengoa irinetarako erabiltzen zen; ogia, pastelak, galletak... egiteko.

